

# *Enpresetako euskara planen eragileentzako jardunaldiak*

*Eskoriatza, 2004ko urtarrilaren 29a*

**LAGUNTZAILEA:**



**ANTOLATZAILEA:**



# AURKIBIDEA

1.-EGITARUA .....	1. or
2.-PARTE HARTZAILEAK .....	2. or
3.-HITZALDIAK .....	3. or
<i>Sarrera</i>	
Juan Luis Arrieta. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua.....	3. or
Jon Sarasua. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea .....	5. or
<i>Etorkizuneko finantziario bideak</i>	
Mikel Izagirre. MCCko euskara koordinatzaile.....	7. or
<i>“Euskararen erabilera organoetan”</i>	
Adrian Zelaia. MCCko Idazkari Orokorra .....	11.or
<i>“Itzulpengintza eta terminologia euskara planetan”</i>	
Patxi Alaña. ARTEZ euskara zerbitzuko zuzendaria .....	15.or
<i>“Enpresetako euskara-planetako eboluzioa”</i>	
Miel Guridi. ELHUYAREko teknikaria.....	21.or
<i>“Pertsonen motibazioa enpresetako euskara planetan”</i>	
Nekane Arratibel. Humanitateak eta Hezkuntza Fakultateko hizkuntzen departamentuko burua. Mondragon Unibertsitatea.	
Elias Zumalde eta Joxpi Irastortza. EMUNeko proiektu arduraduna.....	26.or
<i>“Sindikatuak eta euskararen normalizazioa”</i>	
Leire Txakartegi. ELAko arduraduna.	
Jabi Garnika. LABeko arduraduna.....	31.or
<i>“Kalitate sistemak eta euskara”</i>	
Anaje Narbaiza. ELAY taldea.....	37. or
4.- TALDE DINAMIKAK .....	42.or
4.1.- FINANTZIAZIOA .....	45. or
4.2.- MOTIBAZIOA .....	47. or
4.3.- ITZULPENGINTZA ETA TERMINOLOGIA .....	49. or
4.4.- EBOLUZIOA.....	41.or
5.- JARDUNALDIEN AMAIERA .....	54.or
EUPADAK. Bitoriano Gandiaga.....	54.or

Eskuarteaz duzun dokumentuak “Enpresetako euskara planen eragileentzako” jardunaldien ingurukoak jasotzen ditu. Batetik, parte hartu zuten entitateen zerrenda. Bigarrenik, egunean zehar entzun genituen hitzaldiak jasotzen dira. Azkenik, goizean izan genituen talde dinamiketan ateratako ondorioak ere irakurgai dituzu.

## **1.- EGITARAUA**

### **GOIZA**

**9.15etan:** *Sarrera:* Juan Luis Arrieta (Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua)  
Jon Sarasua, Julen Arexolaleiba (HUHEZI)

**9.30etan:** *Panela*

Ondorengo gaiak aurkeztu zituen hizlari bakoitzak panelean.

- “Etorkizuneko finantziario bideak”  
Mikel Izagirre. MCCko Euskara Koordinatzailea
- “Euskararen erabilera organoetan”  
Adrian Zelaia. MCCko Idazkari Orokorra
- “Itzulpengintza eta terminologia euskara planetan”  
Patxi Alaña. ARTEZ euskara zerbitzuko Zuzendaria

**10.30etan:** atsedena

**10.45etan:** Panelaren jarraipena

- “Enpresetako euskara-planetako eboluzioa”  
Miel Guridi. ELHUYAREko teknikaria
- “Pertsonen motibazioa enpresetako euskara planetan”  
Nekane Arratibel. Humanitateak eta Hezkuntza Fakultateko hizkuntzen departamentuko burua. Mondragon Unibertsitatea.  
Elias Zumalde eta Joxpi Irastortza. EMUNeko proiektu arduradunak.

**12.00etan:** Talde dinamika. Gai bakoitzaren inguruan azterketa eta gogoeta egingo da taldeka, ekarpen eta iritzi gehiago jaso asmoz.

**13.30etan:** *Bazkaria Apotzako ostatuan.*

### **ARRATSALDEA**

**15.30etan:** “**Kalitate sistemak eta euskara**”

.Anaje Narbaiza. ELAY Taldea

**16.00etan:** “**Sindikatuaren egitekoa euskara planetan**”

Leire Txakartegi. ELAko arduraduna.

Jabi Garnika. LABeko arduraduna

**16.30etan:** **Galde-erantzunak**

17.30etan: AMAIERA

## 2.- PARTE HARTZAILEAK

Cikautxo  
Niessen  
TAJO  
Ikerlan  
Orkli  
Euskadiko Kutxa  
Copreci  
Fagor Elektronika  
Fagor Automation  
Fagor Arrasate  
Fagor Elektratresnak  
Fagor Ederlan  
Eika  
MCC  
SAM  
ULMA  
Codesyntax  
INDAR  
Goizper  
Lealde  
Matz Erreka  
Kalitatea fundazioa  
JMA  
BAZT  
AMPO  
Pasaiako portuko agintaritza  
CEGASA  
IDEKO-DANOBAT  
ELAY  
SORALUZE  
Bilboko Udala  
Berrizko Udala  
Donostiako euskara patronatua  
Eibarko Udala  
Bergarako Udala  
Arrasateko Udala  
Aretxabaketako udala  
Lasarte Oriako udala  
Hernaniko Udala  
Debagoieneko Mankomunitatea  
Eusko Jaurlaritza  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Oarsoaldeko euskara zerbitzua  
EITB  
IKA

Azti  
Artez  
Elebi  
AEK-Ahize  
Urrats euskaltegia  
Lea artibai bai euskarari  
Elhuyar  
Emun  
Ekilore  
Huhezi  
LAB  
ELA  
Eta kitto normalizazioa  
Uztarria  
Kontseilua

*Sarrera*  
**Juan Luis Arrieta**

Egun on guztioi

“Enpresetako euskara planen eragileentzako” jardunaldiak direla eta, antolatzaileek Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua entitate laguntzaileari hitz batzuk eskatu dizkiote ekitaldiari hasiera emateko.

Kooperatiben euskaratze prozesuan hain aditu eta zale zaretenoi zer esan gutxi daukagu ekintza garrantzitsu honen helburu eta edukiari buruz.

Hala eta guztiz ere, eta gai orokorretara mugatuz, hona hemen hausnarketarako hainbat puntu:

Helburuari dagokionez bi gogoeta:

Alde batetik, esan gizarte eleaniztun proiektu batean euskaratze prozesuak proiektua bera indartu besterik ez duela egiten, are gehiago, bultzatzen den hizkuntza enpresa partaideak integratzeko egiten denean. Izan ere, ezin dugu ahaztu gizarte batean lana bihurtzen dela integratzearen tresnarik garrantzitsuenak.

Bestetik, kooperatibetan pertsonak eta haien kultur errealitate ezberdinak duen garrantziaren erakusle bihurtzen da proiektu hau. Pentsaezina edo gutxienez askoz ere zailagoa izango litzateke honelako ekimen bat bakarrik onura ekonomikoak helburu dituen enpresa mota batean gauzatzea.

Lana edo proiektuaren edukiari buruz azkenik, gogoeta pertsonal bat:

Nire gazte denboran, Lan Kide Aurrezkian lanean ari nintzela, euskararen aldeko kanpainak ezagutu nituen bertan parte hartuz. Kanpaina hauei esker, euskararen ezagutzarako klaseek izugarritzko bultzada ezagutu zuten. Ikasketen taldeen bitartez, enpresa lankidetzan lantzen bazen ere, giro hartan hizkuntza gaiak izaten ziren nagusi gure artean, laneko gaiak baino.

Egun, enpresa arloan euskalduntze lanetan ari zaretenok badakizue ondo gainditu beharrekoa ezagutza maila baino erabilera dela. Horretarako, irakaskuntza adinako garrantzia du lankideen arteko partehartzeak. Benetako protagonista langilea bera bihurtzen da eta ez hizkuntza irakaslea. Lan honetan jakinduria adinako garrantzia jarrera pertsonalak dauka eta horrek gainera eragin handia du inguruko lankideengan.

Ez da bada harrizkoa gaurko enpresetako euskara planetan pertsonen motibazioari ematen zaion garrantzia, gaurko saioaren egitarauan, besteak beste, agertzen den bezala.

Bestetik, motibazio hau oso lotua dago pertsonalki euskararen ezagutza eta erabilerari ematen diogun tokiarekin, baina ez bakarrik bihotzez eta asmoz, eguneroko ekintzetan ematen diogunarekin baizik. Ezin ditugu kudeatu gure nahiak eta asmoak enpresa euskaratze aldera gure benetako ezagutza eta eguneroko erabilera ez baditugu onartzen eta handik aurrera helburu posible eta neurgarriak ez baditugu jartzen.

Besterik gabe, beraz, ekitaldi hau probetxu handikoa izan dadila plan hauen eragileentzako eta, honen eskutik, parte hartzen duten kooperatibentzako.

**Jon Sarasua**

Lehenik talde antolatzailearen izenean eskerrak eman etortzeagatik. Apur bat harrিতuta ere bagaude izan dugun erantzunarekin.

Iaz liburu bat argitaratu genuen, bi urteko ikerketaren ondoren, eta horren harian ekitaldi ahaztezin bat (guretzat behintzat ahaztezina) izan genuen Arrasateko Amaia antzokian. Aurten jarraipena eman nahi diegu hasitako bide honi. Zein bide? Enpresetan euskararen garapenaren martxari buruzko ikerketa eta gogoeta espazio bat eskaintzeari. Gure ustez, besteak beste, unibertsitateak horixe egin behar du: gizarteko eragileei gogoetarako elementuak eta guneak eskaini.

Nondik gatoz gu, fakultate moduan, gai honetan sartzeko.

Fakultate honek, unibertsitate-eskola honek, 25 urte daramatza euskaratik bizi den unibertsitate bezala pausoak eman nahian. Lehen irakasle ikasketekin bakarrik, orain, gainera psikopedagogiarekin, enpresarako humanitateekin eta hainbat graduondokoekin. Laster, gainera, informazio eta komunikaziorako giza zientziak karrera berriarekin. Zentzu horretan, fakultate euskaldun bat gara, eta euskara hegemoniko duen fakultatea izateko borondatea dugu. Borondate hori da, gai honi heltzera bultzatzen gaituen gure joera naturala.

Bestea da enpresarekin dugun lotura. Gu kooperatiba bat gara, mugimendu kooperatiboaren barruan gaude, eta gure egunerokotasunaren zentzua da inguruko beharrei adi egotea, eta jakintza (baldin eta jakintzarik badugu) behar horien zerbitzura elikatzea.

Guzti honekin, ulertuko duzue, ez direla hauek inoren kurrikuluma gizentzeko edo interes akademikoa duen ekitaldia. Hemen gabiltzan pertsonak izan gara enpresetako euskara plangintzetan, eta aurrera ere hala jarraitu nahi genuke, unibertsitateak dituen gune eta ahalbideak horretara eskainiz.

Jardunaldiok, egia esan, gai honetako eguneroko eragileekin kontrastatuta antolatu ditugu. Han eta hemen jasotakok kezka desberdinak agertuko dira egunean zehar. Ez dugu ahaztu behar gai berria dela, eta lehen hurbilpenak egiten ari garela, eta etorkizunean findu beharko dugula, batez ere praktikan, baina baita gogoetan ere. Ezin eskatuko diogu gure buruari teorizazio borobilik oraindik hain haurra den esperientzia bati buruz. Ez da gutxi hala bildu eta ideietan edo eztabaidan aurreratzeko fundamentua egiten badugu. Hala ere, hurrengo urteetara begira gai honen inguruko azpigai fokalizatuagoetan sakontzeko ideia landu nahi genuke.

Eskerrak beraz, batetik ponentziagile guztiei, eta parte hartzaile guztiei. Elkarrekin kontaktuan jarraitzeko eta jardunaldien ondorioak bidaltzeko paper bat pasako dugu, zuen helbideak jasotzeko. Probetxuzko eguna izan dadila.

***“Etorkizuneko finantziario bideak”***

**Mikel Izagirre. MCCko euskara koordinatzailea**

# ***DIRU ITURRIAK***

- **Enpresaren erabakia**

- Uztiapen kontutik
- Hezkuntza Kooperatiba Sustapenerako Fondotik (Fepitik)
- Beste fondoak

- **Subentzioak**

- Eusko Jaurlaritza
- Bizkaiko Diputazioa
- MCC
- Zenbait udaletxe

## **ZENBAIT EZAUGARRI**

### **Euskara planak dituen gastuak**

- ***Zuzenak***

- Teknikaria - Aholkulari etxeak
- Irakasleak - Euskaltegiak
- Itzulpenak
- Bestelakoak: (Hiztegiak, programak...)

- ***Zeharkakoak***

- Euskara Batzordeko dedikazioa
- Erabilera Talde/ Komunik. Zirkuluak
- Formakuntza: Eskola orduak
- Proiektuak

## **ENPRESAREN ERABAKIA**

### **Explotazio kontutik**

- **Abantailak**

- Enpresako jarduera moduan onartzen da.
- Zuzendaritzaren “onespena” jasotzen du eta, beraz, nolabait inplikatu egiten da.
- Hileroko jarraipena eta balorazioa.

- **Desabantailak**

- Egoera txarretan plana desagertzeko arriskua.

## HKFStik

- **Abantailak**

- Ez da zuzeneko gastua;beraz, errazagoa zuzendaritzari proiektua saltzeko.

- **Desabantailak**

- Plana ez da enpresaren dinamikan sartzen eta ondorioz zuzendaritzaren inplikazio falta egon daiteke.
- Egoera txarretan plana desagertzeko arriskua.

## SUBENTZIOAK

- **Hizkuntza politikarako sailordetzatik**

- Gastu Zuzenetik
  - Zuzeneko gastuak finantzatzen dira
  - Batez beste kostuaren %7-20a finantzatzen da
  - Datu-sorta handia eman behar da

- **Hobetuzetik**

- Hirizpide aldakorrak. Ezin zehaztu kopururik
- Euskara klaseak
- Erabilera taldeak edo Komunikazio zirkuluak

- **Bizkaiako Diputazioak**

- Bizkaiko enpresentzat %30-%80

- **MCCtik KHSF-FEPI**

- Euskara planen diseinuetarako 60.000€ (kostuaren %75, asko jota).
- Euskara planetarako 120.000€
  - Zuzeneko kostuen arabera
  - Partaideen kopuru arabera

- **Udaletzetik**

- Zenbaitetan, laguntzak daude

***“Euskararen erabilera organoetan”***  
**Adrian Zelaia. MCCko Idazkari Orokorra**

## ORGANOAK ERAGITEAREN GARRANTZIA

1. *Kooperatiba guztietan antzeko prozesuak.*
2. *Organoen aldeko jarrera.*
3. Eragin eredugarria kooperatiben gainontzeko arloetan.

## BATZAR NAGUSIA.

### Oraingo egoera.

1. Gutxi batzuk, euskara hutsean (8-10).
2. Aldibereko itzulpenaren hasiera.
3. Kooperatiba gehienetan, hizkuntza biak nahastu edo bikoiztu.

### Aldi bereko itzulpenaren garrantzia

1. Batzarra euskara hutsean egiteko aukerarik ez dagoen kooperatibetan.
2. Horrelakoetan, aurrerapauso estrategikoa izan daiteke. (Kontuz: Euskaratik erdarara).
3. Denon artean, merkeago izango da.
4. Beste organoetan ere aldi bereko itzulpena erabiltzen hasteko pizgarria.

### 2004ko aukera.

1. Kongresuan, aldi bereko itzulpena erabiliko da aurten.
2. Kooperatiba batzuetan bultzakada emateko aukera paregabekoa.
3. Zergatik ez aurten?

### Ondorioa.

1. Aldi bereko itzulpena bultzatu behar da
2. Aurten, aukera ederra horretarako.

## ERREKTORE KONTSEILUEN EGOERA.

1. Batzuk, euskara hutsez.
2. Beste batzuk, erdara hutsez.
3. Bitarteko egoera guztiak.

## ***ERREKTORE KONTSEILUEN AKTAK***

1. Euskara hutsean (ez bietan), horretarako prest dauden kontseilariantzako.
2. Horretarako:  
Gutxienez 4-edo prest egon behar dira euskara hutsezko akta erabiltzeko.  
Akten testua standardizatzea, garrantzitsua.  
Itzultzailerik gabe. Idazkari Teknikoa bera -edo bere laguntzailearen bat- izan beharko litzateke horretarako gai.

## ***Kontseiluaren GIDOIAK eta AKTAK.***

1. Errepikatzen diren hitz solteak, euskaraz: “Acta”, “convocados”, “reunión”, “acuerdo”, “a realizar”, ...
2. Gai bakoitzaren izenburua, bietan.

## ***IDATZI OSAGARRIAK (ppt, word ....)***

1. Laburrak, hobe (edozein hizkuntzatan izanda).
2. Azala, bietan.
3. Izenburuak, bietan.
4. Errepikatzen diren oinak, euskara hutsez (gure kasuan, azalaren testua bera orri guztietan).

## ***ERREKTORE KONTSEILUAK SAILKATU BEHAR DIRA***

1. Oso egoera ezberdinak.
2. Errealitateari egokitzeko beharra.
3. Aldaketak naturaltasunez bideratzeko.

## ***Errektore Kontseiluak. SAILKAPENA.***

1. Denak euskaldunak.
2. 1 edo 2 erdaldunak (Lehendakaria ez bada).
3. Gutxi batzuk erdaldunak (3-6).
4. Gainontzeko kontseiluak (6 erdaldun baino gehiago).

## ***Errektore Kontseiluak. A EREDUA.***

1. Ahozkoa, euskaraz.
2. Deialdiak / Gidoiak / Aktak, euskaraz.
3. Idatzi osagarrietan: Gutxienez, euskararen sinbolismoa gorde (azalak, izenburuak, oinak...)

### ***Errektore Kontseiluak. B EREDUA.***

1. Xuxurlatze - Sistema itzulpena ziurtatzeko
2. Euskaldunak, euskaraz.
3. Deialdiak / Gidoiak / Aktak, euskaraz.
- 4.- Idatzi osagarrietan: Gutxienez, euskararen sinbolismoa gorde (Azalak, izenburuak, oinak...)
- 5.- Hasteko: “Gai bat, euskaraz”.

### ***Errektore Kontseiluak. C EREDUA.***

1. Kooperatiba handietan, aldi bereko itzulpena.
2. Euskaldunak, euskaraz.
3. Idatzi formalak (deialdiak, aktak, gidoiak,..) eta osagarrietan, euskararen sinbolismoa gorde eta bultzatu ( Azalak, izenburuak, oinak, errepikatzen diren hitzak ...)
4. Bat etorri gero: “Gai bat, euskaraz”.

### ***Errektore Kontseiluak. D EREDUA.***

Idatzi formalak (deialdiak, aktak, gidoiak,..) eta osagarrietan, euskararen sinbolismoa gorde eta bultzatu ( Azalak, izenburuak, oinak, errepikatzen diren hitzak ...)

## **ILDO NAGUSIAK**

1. ALDI BEREKO ITZULPENA BATZAR NAGUSIRA.
2. ERREKTORE KONTSEILUA: TIPOLOGIA ETA PROZESUA.
3. ERREKTORE KONTSEILUA: Euskaraz lan egiteko gaitasuna baloratzea.
4. IDAZKARIAK: Euskaraz lan egiteko gai izan behar dira.
5. Tresnak merkatzeko neurriak aztertu:
  - .. Xuxurlatze itzulpena.
  - .. Aldi bereko itzulpena.
  - .. Itzulpen idatzia.

***“Itzulpengintza eta terminologia euskara planetan”***  
**Patxi Alaña. ARTEZ euskara zerbitzuko zuzendaria**

# ***ITZULPENGINTZA***

## **Itzulpengintzaren garrantzia**

- Euskara planak dituzten enpresa askok, euren sektorean euskaraz jarduten lehenak direnez, gehienetan ez dago erreferentzia gisa har daitekeen hizkuntza eredurik eta sektoreko terminologiarik.
- Zerbitzua euskaraz eman ahal izateko, hizkuntza argia, komunikatiboa, arina erabiltzea ezinbestekoa da.
- Euskaraz lan egiteko ere, itzulpen mordoiloak, ulergaitzak ez du balio. Bestela, euskaraz lan egitea erdaraz baino zailagoa dela pentsatuko dute enpresetako langileek.

## **Hizkuntza lan munduan**

Zorionez, mundu sozio-ekonomikoan erabiltzen den hizkuntza, Administrazioan darabiltena baino egokiago, praktikoago eta komunikatiboagoa da. Hala ere, itzulpengintzak arazo askori egin behar dio aurre, enpresa batean euskara zerbitzu eta lan hizkuntza bihurtu nahi dugunean:

- Ulergarritasuna
- Bi edo hiru hizkuntza sartzea
- Bi hizkuntzatan produzitzea
- Hizkuntzaren kalitatea prozesu osoan
- Itzulpenak egiteko autonomia eta denbora
- Estandarizazioa eta antolaketa

## **Ulergarritasuna**

- Itzulpena egin aurretik, edukiaren egokitasun eta ulergarritasun mailak aztertu.
- Idazkien xede nagusia komunikatzea da.
- Normalean, enpresetako sail gehienek agiriak egokiak izaten dira baina, batzuetan, arazoak egon daitezke zenbait txostenetan, iragarki mezuetan.
- Langileek eurek euskarazko komunikazioak egokitzea.
- Kontuan hartu komunikazio baten oinarriko edukiak: izenburua, mezu nagusia, mezu osagarria, oharrak eta amaierakoak (data, izenpea, kodea).

## 2/3hizkuntza sartzeko, laburtu

- Zerbitzu hizkuntza: bezero bakoitzari bere hizkuntzatan edo bi/hiru hizkuntza sartzea agiri berean.
- Bi hizkuntza sartzekotan, testu bolumena ez bikoiztu: testuak arindu, espazioa ondo aprobetxatu, bi hizkuntzetan berdinak diren edukiak (zenbakiak...) ez errepikatu eta euskarari lehenetasuna eman.
- Testu elebidunetan, garrantzitsua da hizkuntzek kokapen egokia izatea, edo hizkuntzak bereizteko teknikak erabiltzea: letra mota desberdinak, kolore desberdinak, ...  
Idazki estandar batean (aurrekontua, inprimakia, jakinarazpena...) luzera egokiena orrialde bat da.

## Bi hizkuntzatan produzitzea

- Testu formatuko komunikazio asko inprimaki bihurtzea komeni da.
- Aurrekontuak hizkuntza batean egin ordez, bi hizkuntzetan egitea lan gehiago denez, ofimatikaren laguntzak erabili: aurrekontuko edukiak datu base batean sartu edo bi zutabeko taula batean, gero, behar diren kontzeptuak ekarri edota Kopiatu/ itsatsi egiteko etab.

## Hizkuntzaren kalitatea prozesu osoan

- Komunikazio baten prozesuan parte hartzaile asko daude: idazten duena, zuzentzen duena, autoedizioa, inprimategia.
- Parte hartzaile hauetako batzuk erdaldunak direnean arazo asko sortzen dira: “Teléfonoa”, “empresa” ...
- Euskarazko itzulpen egoki asko “izoratu” dira azken momenturaino zuzenketa lana ez egiteagatik.

## Itzulpenak egiteko baldintzak

- Itzulpen literalak saihestu, gehienetan egokitzapen eta aldaketa sakonak egitea gomendagarria delako.
- Egoera hauetan, ezinbestekoa da estilo irizpide batzuk ezartzea eta eduki sortzaileekin (erdaldunak zein euskaldunak) adostea.
- Denbora ere hartu behar da. Komunikazio asko itzuli baino egokitzea ezinbestekoa denean, garrantzia eman behar zaio eta ez onartu arin egindako itzulpenak, lankideek edo bezeroek nekez ulertuko dituztenak.

## Estandarizazioa eta antolaketa

- Komunikazio guztiak euskaraz ere ipintzea askoz errazagoa da “Prozesuak” ondo antolatuta dituzten enpresetan.
- Beste enpresa askotan, ordea, langile bakoitzak bere idazkiak ditu, estilo desberdinak daude... eta horietan materiala jasotzea, elebidun jartzea eta erabilera bermatzea zailagoa izaten da. Kasu hauetan, euskararekin batera, antolaketa maila hobetu, dokumentazio elebidun guztia bilduz eta langileen eskura jarritz.

## Komunikazio Kalitatea

- Itzuli baino, egokitu, hobetu, erraztu,
- Itzultzaile baino, komunikazioen kalitate arduraduna: testuak laburtu, ondo antolatu, ondo egituratu, kalitatearen kontrola egin

## TERMINOLOGIARAKO PROPOSAMENA EHI: EUSKARAREN HIZTEGI IREKIA

### Quebec

- Organo erabakitzailea: Gobernuaren Hizkuntza Politikaren Bulego berezi bat.
- Tresna: <http://www.granddictionnaire.com>, 3.000.000 hitz, ingelesez eta frantsesez.
- Prozesua: arlokako hiztegiak eurek egin eta sartu, eta, bidaltzen zaizkien kontsulta terminologikoak ere aztertu eta sartzen dituzte.
- Baliabideak: 20 pertsona.

### Terminologiaren egoera kopurutan

- Erabakitako terminologia: Hiztegi Batua- 25.000 hitz
- Erabaki gabeko terminologia: 395.000 hitz
  - Bilduta eta argitaratuta (erabilera publikoa): 285.000 hitz
    - Orokorra: hiztegi orokorrak (3000, Elhuyar...) 90.000 hitz
    - Teknikoa: Euskalterm: 125.000 hitz
    - Teknikoa, erakunde mailan erabakita eta argitaratuta: Berria, Aldundiak, Ikerlan, Ertzaintza, Energiaren Euskal Erakundea, etab: 50.000 hitz
    - Herriz herri bildutako terminologia: 20.000 hitz

- Bildu barik edo argitaratu barik (barrura begira eginda): 110.000 hitz
  - Teknikoa: enpresa eta erakunde askok “barrura begira” egindako zerrendak: 100.000 hitz
  - Itzul posta zerrenda: ia kontsulta guztiak arlo terminologikoak: 10.000 hitz

## Erakundeak

- Euskaltzaindia
- Ivap-Euskalterm
- Uzei-Euskalterm
- Hiztegi gintzako enpresak: Adorez, Elhuyar...
- Itzultzaileen elkarteak
- Bestelakoak: hedabideak, enpresak, erakundeak, euskalgintzako erakundeak, euskara elkarteak, norbanakoak

## Proposamena: EHI - Euskararen Hiztegi Irekia

- Euskal terminologiaz arduratuko den erakunde bat sortzea, inplikaturako agente guztien artean.
- Ordezkatuta: Euskaltzaindia, Administrazioak (EJ, NG, Iparraldeko Hizkuntz Kontseilua), Irakaskuntza (EHU, NUP, UEU, ...), Hiztegi gintza (Uzei, Adorez, Elhuyar), Eizie, Hedabideak (Eitb, Berria, Topagunea)...
- 20 langile, erakunde bakoitzak dagokion pisuaren arabera jarrita: Euskaltzaindia 5 pertsona, Eusko Jaurlaritza 5, ...
- Talde honekin batera, laguntzaile sare garrantzitsu bat eratu (100-300 bat pertsona), arlo askotakoak.  
Bi sail: Normalizazioa eta Hedapena.

## Lan programa

- Urtero 30.000 hitz erabakitzeko ahalmena, 10 urtetan 300.000era heltzeko. Hasteko, Euskaltermen dagoen guztia eta hiztegi orokorretatik falta dena.
- 10 urtetan oinarritzko 20 arloetako terminologia finkatu: merkataritza, metalgintza, finantza eta aseguruak, osasungintza, administrazioa, etab.
- Normalizatu ondoren, hartutako erabakiak hedatzeko programa bereziak.

## EHI: hiztegi ireki eta federatua

- Hiru mailako informazioa:
  - Erabakitakoa
  - Baimen berezia duten erakundeek sartutakoa, baina oraindik erabaki gabe: Berria, Eitb, EHU,...
  - Besteek sartutako terminologia, baina oraindik erabaki gabe dagoena: erakundeek, elkarrekin, enpresek, norbanakoek...
- Sinonimia dagoenean, aukera egongo litzateke hautapena jartzeko.
- Behin-behineko kontsultak egiteko aukera, itzultzaileen posta zerrenda integratu.
- Kontsultak internet eta arlokako hiztegiak jaisteko aukera: merkataritza, ostalaritza, metalgintza, finantzak, pedagogia...

## Bestelako alderdiak:

- Beste hizkuntzei irekita
  - Elkarlana Quebecekin. Euren beste hizkuntzetara zabaltzeko baimena, hau da, frantsesez eta ingelesez gain, beste hizkuntzak sartzeko aukera izan.
  - Prest ez badaude, gurea egin, baina besteei irekitzeko prestatuta: katalana, okzitaniera, bretoiera, galegoa, esperantoa, etab.
- Beste edukiak
  - Izenak: kaleak, herriak, herrialdeak
  - Laburtzapenak
  - Euskalkiak

***“Enpresetako euskara-planetako eboluzioa”***  
**Miel Guridi. ELHUYAREko teknikaria**

# ASKO ALDATU GARA AZKEN 10 URTEOTAN

## *Inguratzen gaituzten teknologiak:*

Faxa zaharkituta gelditu da, telefono mugikorra errege da, posta elektronikoa, kamera digitalak, GPSak...

## Enpresa mundua

Teknologia, kalitatea, gestio ereduak.

## **....EUSKARA PLANAK ERE BAI**

Halabeharrez, egindako gauza on eta txarretatik ikasiz, teknologia berriak aprobetxatuz eta enpresen erritmo eta lan egiteko moduetara egokituz. Horren adibide gisa plan guztietako lau alderdi hauek:

1.- PLANEN DISEINUA

2.- KOMUNIKAZIO-PLANA

3.- EGITURAK

4.- TEKNOLOGIA

## PLANEN DISEINUA LEHEN

- Informazioa jaso
- Diagnostikoa egin, informazioa antolatu
- Aurrekoan oinarrituz plana diseinatu
- Plana aurkeztu

<b>Alderdi Positiboak</b>	<b>Alderdi negatiboak</b>
Lana sistematizatua	Egokitzapen eskasaren arriskua
	Helburu oso orokorrak
	Egitura paraleloak sortzeko arriskua

# PLANAREN DISEINUA GAUR EGUN

- Diagnostikoa egin, informazioa bildu
- Lan-talde berezia sortu enpresan
- Diagnostikoa lan-taldearekin kontrastatu
- Helburuak, ekintzak, erritmoak eta egiturak lan-taldean adostutakoak

Alderdi Positiboak	Alderdi negatiboak
Planak enpresetara hobeto egokitu	Fase hau epe laburragoan egitea
Helburuak askoz ere zehatzagoak dira	
Empowerment-a	

## *EGITURA LEHEN*

- Departamentuka osatutako hobetze-taldeak.
- Formazioa.
- Euskara batzordea taldeetako eta erabakiguneetako ordezkarietara osatua.

Alderdi Positiboak	Alderdi negatiboak
Borondatezkoa izan arren, jende askok parte hartzea bermatzen da eta planarekiko identifikazio handia.	Talde batzuek proposatutako erabakiak ez dira bideragarriak.
	Motibazioa galtzea zenbait espektatiba ez betetzeagatik.

## EGITURA GAUR EGUN

- Helburua landu behar duen taldearen arduraduna enpresako arduradun naturala da.
- Lan-taldeak helburua landu bitarteko iraupena du.

Alderdi Positiboak	Alderdi negatiboak
Eraginkortasuna askoz ere handiagoa	Gaiak lantzeko inplikaturako langile kopurua txikiagoa da.
	Orokorrean planarekiko identifikazioa txikiagoa da.
	Erabilera informalak ihes egin ote digu?

--	--

## KOMUNIKAZIO - PLANA LEHEN

- Zenbait unetan komunikatuak ateratzen ziren.
- Ohar-taulak, posta, bilerak, etab. erabiltzen ziren, baina modu informalean ez bazen ere, bai gehiegi planifikatu gabe.

Alderdi Positiboak	Alderdi negatiboak
Ondo edo gaizki, garaiz edo berandu, jendeak bazuen planaren berri.	Erabat planifikatu gabe izateak bazuen hainbat arrisku: batzuk informazio gehiegi, beste batzuk gutxiegi; dagokion garaian ematea.

## KOMUNIKAZIO - PLANA GAUR EGUN

- Euskara-planarekin batera ez bada, plana gauzatzen hasi bezain laster planifikatzen da komunikazio-plana.

Alderdi Positiboak	Alderdi negatiboak
Komunikazioa modu antolatuan ematen da. Planaren tresna nagusietako bat da.	Enpresetako komunikazio-planean/politikan txertatzea komeni da eta batzuetan zaila da.

## TEKNOLOGIA LEHEN

- Kasurik onenetan testu-prozesadoreak eta inkestaren batean datu-baseak erabiltzen ziren.

Alderdi Positiboak	Alderdi negatiboak
Birusen, blokeoen eta abarren kezkarik ez.	Lan asko “eskuz” egin behar izateak zenbait lan luzatu, astunagoak edo eginezinak bihurtzen zituen.

# TEKNOLOGIA GAUR EGUN

- Tresna asko daude lan egiteko: diagnostikoak lantzeko, erabileraren neurketak egiteko, formazio-beharrak detektatzeko eta horien segimendua egiteko, komunikatzeko...

<b>Alderdi Positiboak</b>	<b>Alderdi negatiboak</b>
Zenbait lan erraztu egin dira eta datu asko erabiltzeko aukera ematen digute.	“Datukeria”: enpresa, administrazio eta gizartea horretara ohitua dago eta askotan ikuspegi kualitatiboa ez dute islatzen datu horiek.

*Asko aldatu gara/dugu  
baina hobetzea bada helburu  
etengabe aldatu beharra seguru*

***“Pertsonen motibazioa enpresetako euskara planetan”***

**Nekane Arratibel. Humanitateak eta Hezkuntza Fakultateko hizkuntzen departamentuko burua. Mondragon Unibertsitatea.**

**Elias Zumalde eta Joxpi Irastortza. EMUNeko proiektu arduradunak.**

# MARKO TEORIKOA

## Zer da motibazioa

- ✓ Definizio ugari eman zaizkio
- ✓ Definizio gehienek jasotzen dituzte giza portaeraren norabidea eta intentsitatea
- ✓ Horiek kontuan harturik, bereiz ditzakegu:
  - Modu jakin batean ekiteko hautua
  - Jarduera horretan ahalegintzea
  - Jarduera horretan irautea

## Motibazioaren osagaiak

- ✓ Motibazioaren intentsitatea edo indarra: portaera edo ekintza konkretua aurrera eramateko desioa edo nahia.
- ✓ Motibazioaren noranzkoa: portaera edo ekintza konkretua aurrera eramateko arrazoi mota.
- ✓ Motibazioaren noranzkoa kontinuum bat litzateke (integratzaile-instrumental, barne-kanpo, intrintseko-estrinseko,...)

## Motibazioa eta jarrera

- ✓ Hizkuntza ikasi eta erabiltzeko motibazioak jarrerazko oinarri indartsua du Gardner-en ustez (Gardner, 1985).
- ✓ Jarrerak motibazioaren intentsitatean eta noranzkoan gertatzen diren gizabanakoen arteko ezberdintasunak azaltzen dituzte. Jarrerazko oinarri egonkorra behar da denbora luzean motibazioa mantentzeko.

## Motibazioa aztertzeko eredu ezberdinak

- ✓ **Igurikapen/Balio teoriak:** aurrera eramango dugun ekintza horrek balio handia badu guretzat, eta gudan sortzen dituen igurikapenak positiboak badira, ekintza hori aurrera eramateko motibatuak gaude.

Eredu hauek oinarrian duten ideia da helburu bat lortzeko oinarrizko osagai motibaziozkoa intentzionalitatea dela.

- ✓ **Akzioaren Kontrol teoriak:** intentzioa beharrezkoa da ekintza boluntario bat hasteko, baina honek ez du helburua lortuko dela bermatzen.
- ✓ Intentziotik akziorako pausua ez da automatikoa.
- ✓ Prozesu eta egitura psikologikoez bitartekari papera jokatzen dute (kontrol pertsonala, esate baterako).
- ✓ **Egozpen teoriak:** eredu hauetan ere oinarrian daude portaeraren aspektu kognitibo eta arazoizkoak, baina interesa ez da intentzioa eta helburua betetzen den aztertzea, baizik eta lortutako emaitzen inguruan pertsonen egindako egozpenak edota azalpen argumentuak. Egindako egozpenek etorkizuneko igurikapen eta helburuen hautuan eragingo dute.

## Motibazioaz hainbat gogoeta

- ✓ Motibazioaren noranzkorik nagusienak integratzailea eta instrumentala dira.
- ✓ Motibazioaren noranzko integratzailea, tradizionalki, helburuen lorpenarekin lotu izan da.
- ✓ Motibazioaren noranzko instrumentala tradizionalki porrotarekin lotu izan da, eta ez du zertan horrela izan.
- ✓ Motibazioaren noranzko “garbirik” ez dago.
- ✓ Motibazioa prozesu dinamikoa da.
- ✓ Motibazioa konplexua da oso, bertan eragiten duten aldagaiak anitzak eta mota ezberdinetakoak izanik (banakoari dagozkionak nahiz inguruneak edo sozialak).
- ✓ Motibazioa elikatu egin behar da, eta horretan norbanakoaz gain inguruak ere eragin behar du.

## ***PERTSONEN JARRERA EUSKARA PLANETAN***

### ***1. proba (1999)***

**Datuak:** lagina (275) eta galdetegiak:

- Zer iritzi duzu zure enpresan euskararen erabilera bultzatzeko asmoari buruz?

- Enpresan euskara gehiago erabiltzeko plangintzan zein izango litzateke zure ustez hurrengo puntuak izango luketen balorazioa?

**Emaitzak:** %97k planaren aldeko iritzia. Balorazio ona edo oso ona.

**Ondorioak:** jarrera eta portaera ez datoz bat.

## 2. proba (2001)

**Datuak:** lagina (60) eta galdetegiak:

- Enpresan euskara gehiago erabiltzeko zein izango litzateke zure ustez puntu hauek edukiko luketen balorazioa?
- Zu zer egiteko prest egongo zinateke euskararen alde?

**Emaidzak:** Estatistikoki emaitza esanguratsurik ez.

**Ondorioak:**

- Portaera intentzioa azaltzeak ez du ziurtatzen portaera hori abian jarriko denik.
- Esana eta izana ez datoz bat.
- Zenbait portaera ez daude pertsonaren kontrolpean.

## 3. proba (2002)

**Datuak:** Lagina (20), 10eko bi talde. Kontrol taldea/talde esperimentalak.

Konpromiso zerrenda.

Talde esperimentalekoek kanpo kontrola (mezua, fitxa).

Kontrol taldekoek autokontrola.

**Emaidzak:**

- Hartutako konpromiso kopurua (batezbestekoak):
  1. Jarraipena izandakoak: 10, 7%
  2. Jarraipenik gabekoak: 3,7%
- Konpromisoen betetze maila (batezbestekoak):
  1. Jarraipena izandakoak: 75,28%
  2. Jarraipenik gabekoak: 41,95%

**Ondorioak:**

- Gure planen arrakasta dela-eta kontuan izan beharreko alderdia.
- Festlinger (1957): disonantzia, pentsatzen eta egiten denaren arteko inkongruentzia.
- Jarrera, portaera intentzioa, intentziotik inplementaziora.
- Zenbait jokabide kontrolagarriak dira beste batzuk baino.
- Autokontrola/kanpo kontrola.
- Portaera aldatzeko borondatek ekintzetara: inplementazioa (Gollwitzer, 1993).
- Portaera neurgarriak; adierazleak, ponderazioa, eboluzioa.
- Motibazio ekintzak.

# ***MOTIBAZIO EKINTZAK ENPRESETAN***

## ***Testuingurua***

- Motibazioaren garrantzia euskararen berreskurapenean. (Txepetx)
- Enpresetako ohiko dinamiketarik kanpo
  - ✓ Produktibitateak lehentasuna
  - ✓ Denbora galtze sententzioa
  - ✓ Emaitzak ikustea zaila

## ***Oinarri praktikoak***

- Ahaleginak merezi du.
- Ereduak badituz eta sortzen ari naiz.
- Gauzak egiten dira. Aurrera goaz.
- Ez nago bakarrik.
- Geuk egiten dugu.
- Ez nau eta ez dituz baztertzen.
- Norabidea garbi dago. Zer egin nahi dugu eta nola lortuko dugu?

## ***Ekintza motak***

Aurrez aurreko interaktibitatea

### **Taldean**

- Erabilera taldeak, mintegiak, koloregramak, formazio saioak, irteerak...

### **Bakarka**

- Lanpostuko laguntzak, jolasak...

### **Zeharkakoak**

- Kanpainak, berri-paperak, kanpo ekintzak, leloak, lehiaketak, egun bereziak, jolasak...

***“Kalitate sistemak eta euskara”***  
**Anaje Narbaiza. ELAY taldea.**

# ***HASIERAKO URRATSAK***

- Hartutako erabakien bilduma ET-002.
- Sistematizazio premia.
- Lantegian ezaguna den sistematizazio tresnaren erabilpena. (1996an: ISO- 9002 1994ko berrikuspenarekin, ondoren ISO-9001,2000.urtekoa.ISO-TS 16949 2002 koa).
- Euskara Batzordea izendatzea.
- Euskara politikaren ezarpena ET-001.
- Euskararen inguruko prozedurak lantzea.

## ***LEHENENGO LAU URTETAKO HISTORIA LABURRA***

### ***“Elay taldearen euskararekiko hizkuntza politika”***

Elay Taldeko langileek 1992ko otsailean egindako batzar orokorrean onartutakoen arabera, euskararekiko hizkuntza politikaren azken helburuak honako hauek dira:

1. Barne-harremanak euskalduntzea: euskara lan hizkuntza izatea, alegia.
2. Kanpo-harremanak euskalduntzea: hornitzaile, bezero etab.ekiko harremanetan euskararen erabilera sistematikoki garatzea.

Helburu nagusi horien zehaztapenak egiteko honako faktore hauek hartuko dira kontuan:

- a) Helburuek prozesuaren norabidea adierazten dute, euskararentzat irabazitakoak. Horiek mantendu, finkatu eta horietan aurrera egitea izango da lanaren ardatza.
- b) Ibilbidean aurrera egiteko erritmoa langileek eta enpresaren zuzendaritzak ezarri eta definituko dituzte. Guztiek dute erantzukizuna eta guztiak dira prozesu horretan beharrezkoak.

Euskararen aldeko hizkuntza politika honako ardatz hauen arabera garatu da:

- Langileen euskarazko gaitasuna hobetu trebakuntzaren bidez.
- Elay taldeko barne-harremanetan euskararen erabilera sendotu.
- Bezeroarekiko harremanetan euskara erabiltzeko aukerak identifikatu eta erabilera garatzeko erabili.
- Hornitzaileekiko harremanetan euskara erabiltzeko aukerak identifikatu eta erabilera garatzeko erabili.
- Administrazio publikoekiko harremanetan.

- Ikus-eremuan (paisaia linguistikoan) euskararen presentzia areagotu.

## PROZEDURAREN EREMUA ETA EGITURA

### *PROZEDURAREN REMUA ETA EGITURA*

- Ahozko erabilera ( euskaldunen artekoa/ euskara ikasten diharduenekin/ euskaldunez osatutako bilerak....).
- Idatzizko erabilera (barrurako , kanporako, nork jaso behar duen, izaera orokorra edo partikularra, administrazio publikoa...).
- Paisaia linguistikoa (Makinen softak, errotuluak, Web orriak, ohar tauletan....).
- Kudeaketaren egitura (Euskara batzordea, azpibatzerdea...).


***IRIZPIDE NAGUSIAK. ELAYk bere gain hartzen duenean jarraipen fasea***

***IRIZPIDE NAGUSIAK. ELAYk bere gain hartzen duenean jarraipen fasea***

***Azpiegituraren antolamendua***

Organigrama egokitu euskararen proiektuari aurre egiteko

Euskara batzordearen organigrama



## ***Berrikuspén sistematikoak***

- Berrikuspénak segurtatzea
- Berrikuspenerako maiztasuna (urtean behin...)
- Beste edozein sistemak eskaintzen duen baliabideak erabiltzen dira. Akzio zuzentzaileak eta etengabeko hobekuntza.

## ***Jarraipena***

### **“Ezin dena neurtu ezin da kudeatu”**

- .-Jarraipena egiteko tresna sistematikoak aurkitu (prozedurak).
- .
- Adierazleak aurkitu.
- .
- Neurtzeko baliabideak ezarri.
- .
- Langile bakoitzaren ikasketa prozesuari jarraipena egin, lana euskaraz betetzeko gauza den arte.
- .
- Agiriei, lan aginduei, hizkuntza paisaiari, hornitzaileei, sail ezberdinetako barne harremanei, ezarpen prozesuari jarraipena egin.

## ***EUSKARA PROZEDURAK kalitate/segurtasun/ inguru giro sistemetan TXERTATUAK***

- Sistema guztiek, duten helburua lortzeko, egiteko modu propio bat sortzen dute arau baten arabera.
- Egiatagiriak, arauak betetzen direnaren ikurrak dira.
- Euskara sistema horietan txertatzeak enpresan hizkuntzaren presentzia segurtatzen du.
- Gaur egun enpresetan euskara normaltzeko tresna ezagunak dira.

## ***SISTEMEN IKUSKARITZA ETA EUSKARA***

- Neurtu, alderatu eta bide bat erakusten dute aurrera jarraitzeko.
- Bezeroen Ikuskaritzak. Hizkuntzaren gaia adierazi eta ulertzen lagundu.
- Auditoreek euskara jakiteko premia sumatzen dute. ISO-TSan adibidez ez dago auditore euskaldunik.
- 14.001 Ingurugiroko araua euskaratu zen, baina AENORrek ez du oraindik indarrean jarri. Bada zer egin....
- Nekeztasunak agertzen dira baina konpon daitezke.

### ***Hizkuntzaren ikuskaritzak***

### ***Hizkuntzaren ikuskaritzak***

- .- 1999an hasita barne ikuskaritzak egin genituen Elhuyarren laguntzaz.
- 2002an barne ikuskaritza hori kanpo ikuskaritza bihurtu nahi izan genuen eta Kontseilua eta HPSko kideak egon ziren.
- Ikuskaritza guztietan lantzeko alor berriak atera dira eta akzio zuzentzaileak hartu beharra ere azaldu da.
- Horren ondorioz “ Guk Lana eta Zerbitzua Euskaraz “ egiaztagiria atera genuen 2002an.
- Egiatagiria lortzeko kolektiboarentzat indar motibatzailea izan zen.

## ***AURRERANTZEAN***

## ***AURRERANTZEAN***

.- Enpresan sortzen ari diren sistema berriek dituzten kudeaketa arau berrietan presentzia segurtatzea. Euskara eta enpresa elkarrekin berritu behar dira.

- EFQMa bada bidea, Teknologi klusterrak egindako autoebaluazio sistema ezarri. GOA.

- Adierazleen jarraipena egin.

- Gure inguruko enpresetan (hornitzaileak, azpikontratatuak, aholkulariak, administrazioak) oinarritu aurrera pausoak emateko.

- Atzera pausoak eman aurretik, hobe da plana indargabetzea.

## ***ENPRESA BAKOITZAREN POLITIKA***

## ***ENPRESA BAKOITZAREN POLITIKA***

- ENPRESA BAT / PLAN BAT
- HIZKUNTZA POLITIKAREN DEFINIZIO GARBIA.
- HELBURUAK LORTZEKO BIDEA

## ***NAZIOARTEKO HIZKUNTZEN EGIAZTAGIRIA***

## ***NAZIOARTEKO HIZKUNTZEN EGIAZTAGIRIA***

- Arau bat sortuko litzateke
- Sistematizazioa bultzatuko luke
- Adierazleen eboluzioa neurtzeko tresnak emango litzuzke.

- Hobetzeko bideak eskainiko lituzke.

***“Sindikatuak eta euskararen normalizazioa”***  
**Leire Txakartegi. ELAko arduraduna.**  
**Jabi Garnika. LABeko arduraduna.**

# ***SARRERA***

Euskararen erabilera nabarmen txikiagoa da esparru sozio-ekonomikoan eta lan munduan beste eremu batzuetan baino.

Euskararen normalizazioaren erronka nagusia gaur egun lan harremanetan dagoela esan dezakegu. Normalizazioaren helburua ez litzateke soilik langileak euskalduntzea, barne zein kanpoko lan harremanetan euskararen erabilpena bermatzeko baldintza egokiak sortzea baizik, euskara lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza bihurtzea, hain justu.


Egoera honen arrazoiak askotarikoak dira, eta horien artean Administrazioaren borondate politikoaren nahikotasun eza eta normalizazio politika orokorraren porrota aipatu behar dira batez ere. Hala ere, sindikatuok ere gizarte eragile garen aldetik, eta lan merkatuan zuzenean parte hartzen dugun heinean, geure erantzukizuna aitortu beharrean gaude.

# ***KOKAPENA***

Sindikatuok agente sozio-laborala izanik protagonismo eta erantzukizun bikoitza dugu, bi esparru hauetan:

- Eragile sozial gisa, gizartean gertatzen diren arazoan, mugimenduen, salaketen, proposamenen, masa-ekitaldien eta abarretan.
- Eragile laboral gisa, lan-munduan dauden gune desberdinetan (enpresa, administrazio, LHK, CES, Osalan, Hobetuz, ...)

Hitzaldi honetan aztertu nahi dugu zein izan den sindikatuon orain arteko jarduna esparru hauetan eta zein aurrerantzean aurreikusten duguna.



## *Gizarte eragileak*

Gizarte eragile eta eragile politiko euskaltzale eta abertzale garen aldetik, azken urteotan Euskal Herrian euskararen alde egindako ekimenetan, eta, era berean, euskalgintzak jasan dituen erasoen aurka, paper garrantzitsua jokatu dugu ELAk eta LABek, bai tokiko egituretatik baina bereziki egitura konfederaletik:

- Kontseilua:
- ‘Bai Euskarari’ ekimenari laguntza
- Lan-ordua, enpresaz enpresa egindako lana
- Egunkaria:
- Gehiengo sindikalaren erantzuna: ordubeteko lanuztea eta “La Casilla”ko ekitaldia
- Berria
- Diru bilketa sindikatuetan
- Korrika
- Ikastolen ekitaldiak
- Oinarriak Nafarroan
- (...)

Ondorio gisa esan dezakegu sindikatu abertzaleok inplikazio inportantea izan dugula, badugula une honetan eta aurrerantzean ere izango dugula gizarte mailan sortzen diren aldarrikapenekin.

## ***Eragile laboralak***

Gure hutsunerik nagusiena lan harremanetako esparruan dago. Hala nola, sindikatu bezala, enpresetan, negoziazio kolektiboan, maila interprofesionalean etab ez dugu euskararen normalizazioaren esparruan erantzukizun zuzen bat hartu.

- Aurreko atalean gure inplikazioaren balantzea egiteko garaian irakurketa positiboa egiten badugu ere, esparru laboralez hitz egiteko ordua ailegatzen denean emaitzak bestelakoak direla argi eta garbi ikusten da.

Normalizazio linguistikoaren kezka eta dinamikak ez dira oraindik lan munduaren hainbat eta hainbat esparrutara ailegatu. Argi dago ere hor gauden agente desberdinak erantzukizun zuzena dugula (autokritika): Administrazioa (enplegatzaile den aldetik eta arduradun politiko gisa), enpresarien elkarteak (CONFEBASK, CEN, MEDEF) eta sindikatuak (ELA, LAB, CCOO, UGT...)

### ***1- Orain arte egindakoa***

- ***Arlo publikoan***

Hiru nortasun juridiko-politiko desberdinez hitz egiten ari gara eta honek ere eragina zuzena du administrazio horietan euskarak lan harremanetarako hizkuntza gisa jasaten dituen egoerak aztertzekeo garaian .

Arlo publikoan sindikatuen ekintza eta eragina nabarmena izan da hainbatetan, bai tokiko egituretatik maila lokalean zein egitura konfederaletik administrazio orokorretan, esate baterako:

- Udal administrazioak euskalduntzearen alde.
- Irakaskuntza sistema euskalduntzearen alde.
- Osakidetza euskalduntzeko dekretuaren eta planaren alde.
- Osasunbidean hizkuntza eskubideak bermatzearen alde.
- Nafarroako beste hainbat administrazioetan izandako erasoaren aurka.

- ***Arlo pribatuan***

#### ***Tokiko egituretatik***

Enpresetan orain arte egin dena aztertzen badugu argi eta garbi ikusten da euskararen gaiarekin aspaldidanik egon dela han eta hemen kezka eta eskaera langile eta afiliatuen aldetik. Hala ere, sindikatuok ez dugu jakin kezka hori behar bezala lantzen.

Hori dela eta, enpresetan bi errealitatekin topo egiten dugu: a) enpresa askotan euskararen inguruko klausulak daude, baina oso azterketa edo sakontasun apalez eginikoak; eta b) oso enpresa gutxi aztertu eta sakondu dute, aldiz, ze ariketa egin behar den enpresako funtzionamendua euskaraz izan ahal izateko.

Hemen sindikatuok urte askotan noraezean ibili gara eta egindakoak kasu gehienetan tokian tokiko egituretatik sortutako iniziatiba partikularrei esker egin da (bai langileen, zein enpresarien aldetik).

### ***Egitura konfederaletik***

Esan bezala, egitura konfederaletik euskararen gaiarekin arlo pribatuan eta eragile laboral gisa egindakoa eskasa izan da erabat. Ez hutsa halere, izan baitira ekimen batzuk, hala nola 90. hamarkadan hainbat urtez Nafarroan gauzatutako kanpainak.

Kasu honetan atzera pausua eman da. Elkarlan sindikal hori egun ematea oso zaila delako kanpoko agenteen eraginez (egoera politikoa). Gaur egun sindikatu abertzaleok askoz barneratuagoa daukagu zein izan behar den gure papera eta nola bideratu gaia.

## ***2.- Orain egiten ari garena***

- ***Arlo pribatuan***

### ***Egitura konfederaletik***

Lan munduaren normalizazio linguistikoaren hausnarketaz aurrerapenak ematen hasiak gaude, horretarako gako garrantzitsua izan da norberak (ELAk zein LABek), gure plan propioak edukitzea edo lantzen hasiak izana.

Egoera honen aurrean kezkatuta, eta dagokigun erantzukizuna hartzeko asmoarekin, ELA eta LAB elkarrekin lanean dihardugu lan munduan euskararen normalizazioaren inguruan lan bateratua egiteko asmotan.

2003. urteko ELA eta LABen arteko negoziazio kolektiboari buruzko akordio konfederalen ondorengo jaso genuen: ***“enpresetan euskararen normalizazioan aurrera egiteko eta horretarako urrats eraginkorrek emateko garaia da, proposamen eta konpromiso zehatzak ezarriz. Bereziki, eta konpromiso honen marko orokor bezala, sektore eta enpresetako hitzarmenetan euskararen erabilpenaren normalizazioa bultzatzeko akordio interkonfederala proposatzen da”***.

2004. urte honetan harantzago joan nahi dugu, konpromiso zehatzagoak, eta jarraipen zuzenagoa egin.

## ***3- Hausnarketa***

Gure hausnarketan asko zentratu gara egun dauden baliabideen egokitasunaz eta guk eman nahi ditugun urratsetarako baliagarriak diren ala ez.

Lan munduan baliabide nagusienetariko bat legea denez, gure esparruan hiru maila bereiz ditzakegu:

1.Lege orokorra, euskarari buruzkoa. Ez du balio guk nahi dugun helburua lortzeko.

2.Hitzarmen sektorialak. Zaila da hauetan zehaztapenetan sartzea, edozein hitzarmenetan enpresen arteko desoreka oso handia da, beraz ezin da arau berdina denontzako egin. Baina bai balio dute (guk hor kokatzen dugu iaz ELA eta LABen arteko Negoziazio Kolektiborako akordioa) dibulgaziorako, gizarteratzerako, irizpideak finkatzeko...

3.Enpresako hitzarmena edo paktua. Guretzat hau oso inportantea da, honen bitartez edozein enpresatako joko arauak (zehatzak) finkatzen direlako. Horregatik, garrantzia ematen diogu batez ere enpresa handietan normalizazio linguistikoa bideratu ahal izateari.

Hausnarketaren bigarren puntua, egun dauden gune sozioekonomikoen papera eta sortu beharreko baliabide berriak:

- Egun lan munduari dagokionez ez dago organo bat bera ere Euskal Herriko lurraldetasuna bere osotasunean hartzen duena. Baditugu CES bikoitza (Elkarte Autonomoan zein Nafarroan), Lan Harremanetarako Kontseilua (Elkarte Autonomoan), Hobetuz (Elkarte Autonomoan) edo Garapen Kontseilua (Ipar Euskal Herrian).
- Egoera honek zaildu egiten du azterketa eta proiektu orokor bat egitearen aukera, administrazioekin kontatu nahi bada behintzat.

Beraz, administrazioen inplikazioa nahi badugu (beharrezkoa dugu), imajinazioa landu beharko dugu edo dagoen zatiketa juridiko-administratibotik abiatu beharko dugu.

Hausnarketa hauek egiterakoan garrantzi handia ematen diogu egun Elkarte Autonomoan dagoen Lan Harremanetarako Kontseiluak joka dezakeen paperari, gure ustetan gune honetan gogoeta fase bat ireki behar dugu (hausnarketa, diagnostikoa, eman beharreko urratsak eta horretarako ze baliabide behar diren).

Jakin badakigu gune honetatik egingo den hausnarketa ez dela definitiboa izango (beste adibide batzuk badaude), baina aurrerapauso inportante bat izango litzateke baldin eta Enpresarien Elkarte (Confebask) eta sindikatu nagusiak (ELA, CCOO, LAB eta UGT) adostasun puntu batera ailegatuko bagina.

Sortu beharreko baliabideez une honetan gure burutazioak gune propioa sortzearen inguruan doaz. Ikusi izan dugunez, lan munduan gai bati serioski heldu nahi izan diogunean, beti gune propioa sortu behar izan dugu: Hobetuz, Osalan,...

Hausnarketarekin amaitzeko, eta Negoziazio Kolektiboaren arloan, hitzarmen sektorialetan sartu nahi ditugun klausulak pedagogi eta sozializazio lana egiteko tresna bihurtu nahi ditugu, formula eraginkorragoak bilatuz.

Gure ustez, normalizazioaren inguruan urrats eraginkorrak emateko esparrua enpresak dira. Enpresan dauden eragile ezberdinek normalizazioaren beharra barneratu behar dute.

Alde batetik, langileek, normalizazio plan batean aktiboki parte hartzeko borondatea, nahia eta konpromisoa izan behar dute, euskara lan hizkuntza bezala erabiltzeko aukera baikorki baloratu.

Bestetik, zuzendaritzak ere lan eta ekonomi harremanak euskaraz garatzea enpresaren produktuari kalitatea eransten dion plus bezala ikusi behar dute, prozesu baten ostean.

Orain arte, normalizazio planak garatu diren enpresa askotan zuzendaritzaren ekimenagatik izan da. Sindikatuok ekimen handiagoa izan behar dugu arlo honetan.

## ***4- Egin nahi duguna***

Aurrera begira, sei arlotan lan egitea aurreikusten ari gara:

- Diskurtsoaren arloan
- Legearen arloan
- Instituzionalizatzearen arloan
- Gizarteratzearen arloan
- Ekintzen arloan
- Hausnarketaren arloan

- **Diskurtsoaren arloan**

Euskarak eta euskararen normalizazioak enpresan leku naturala zergatik duten azalduko duen argumentazioa eta diskurtsoa landu nahi dugu. Eta ondoren sozializatu.

- **Legearen arloan**

Negoiazio kolektiboetan, hitzarmen sektorialetan eta enpresa paktuetan hizkuntzaren normalizaziorako klausulak sartu nahi ditugu progresiboki.

Lege orokorren aukerak baliatu nahi ditugu geure erreibindikazioak babesteko: Kontsumitzailearen Legea.

- **Instituzionalizatzearen arloan**

Lehen esan bezala, lan munduan normalizazioaren inguruan nolabaiteko babes edo marko instituzionalizatu bat landu nahi dugu, maila interprofesionalean. Maila interprofesionalari buruz ari garenean, sindikatu, patronal, eta administrazioa (lan saila) gauden esparruari buruz ari gara. EAEren kasuan, Lan Harremanen Kontseilua, hain zuzen.

Akordio hau ez litzateke aldarrikapen programatiko edo instituzional soil bat, horrek alde batzuen jarrera zuzitzeko balio izatea suposa dezakeelako, eta gainera, beste fase batera joan nahi dugulako, konpromiso zehatzetara, hain zuzen. Bere edukiaren gauzapena enpresa zehatzetan eman beharko litzateke, hauetan hartu beharrezkoak diren konpromisoak, beti ere, LHK-an onartutako akordioaren ildo nagusiak kontutan izanik.

Akordio honen bitartez, bestalde, baliabide gisa euskara lan-munduan garatzeko instituzio espezifikoko baten sorrera bultzatu nahi da: Fundazio edo antzekoa.

- **Ekintzen arloan**

Normalizazio planak aurrera eramatea posible den enpresen aukeraketa egin nahi dugu, eta esperientzia bezala, normalizaziorako inizatibak bultzatzen hasi.

- **Gizarteratzearen arloan**

Enpresetan gaia gizarteratzen lagunduko duen kanpaina burutu nahi dugu.

- **Hausnarketaren arloan**

Lan-munduko eragileen inizatibaz eta ikuspuntutuz, Konferentzia bat antolatu nahi dugu sindikalismoaren egitekoa hizkuntzaren normalizazioan aztertzeko.

## ***5- Azken hitzak***

- Gizarte eragileak
- Gizarte laboralak
  - Arlo publikoan
  - Arlo pribatuan

Hasi besterik ez gara egin. Eta bai ELAn bai LABen argi dugu egin nahi ditugunak eta egin ditzakegunen artean oreka bilatzea oso inportantea dela, eta zailtasunak ere ugari direla. Ea nola lortzen dugun apustu desberdinetatik (enpresa paktuak, hitzarmenak, gure arteko elkarlana, LHK, e.a. ) beste atalak bultzatzea eta azkenean lan munduaren normalizazio linguistikoaren gurpilak abiadura hartzea.

Gurpil horretan sartzen dugu ekonomia sozialak egun eta aurrera begira joka dezakeen papera. Egia da sindikatuok hor zer esan gutxi daukagula, baina gure ustetan gure arteko elkarlanerako bideak eta guneak bilatu behar ditugu.

Hala Bedi

## 4.- TALDE DINAMIKAK

Talde dinamiken helburua partehartzaileen esperientziak, kezkek, iritziak eta proposamenak jasotzea izan da.

### 4.1.-FINANTZIAZIOA

Ondorengo lau galderen inguruan gogoeta egingo da.

#### 1.- Planak bideratzen hasi zirenetik izaniko hobekuntzak.

- Informazio zabalagoa ematen da.
- Enpresak planak ohiko gastu bezala onartzen hasi dira, fondo propioen zati bat planetara bideratuz.
- Administrazioak poltsa bat sortu zuen.
- FAGOR Taldeko Fondoa ideia eredugarria da.
- Gastuak zatitzen hasi dira (itzulpenak sail bakoitzak berea barneratzen, formazio-planean euskara gaia sartzen).
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren eragina.
- Kontseilua: 'Bai euskarari' ziurtagiria.

#### 2.- Gaur egun zertan sumatzen ditugu ahuleziak?

- Enpresa eta entitate txikietan finantziazioa askotan oso eskasa izaten da. 25 baino gutxiago diren enpresa txikientzako zer?
- Enpresa elkargoak: plataforma bateraturik ez egotea indarrak bildu eta gehiago eragiteko.
- Dirulaguntzak ez dira egonkorak:
  - Enpresetan ustiapen kontutik datorrelako.
  - Eusko Jaurlaritzan fondoa beti antzerakoa delako eta aurkezten direnak gero eta gehiago direlako.
- Dirulaguntzen kontzeptuak ez dira egokiak:
  - Formaziorako dirulaguntzak erabiltzen dira baina beste ekintzetarako ere bideratu beharko lirateke. Adib: lanak ez biderkatzeko lankidetzeta politika bat sustatzen.
  - Baldintzak estutu egin dira.
  - Koordinazio-ekintzak sortzeko aukerarik ez dute eskaintzen.
  - 100 enpresatik 1000ra pasatzeko "saltze" lan bat dago, lan hau egiteko ez da kontenplazten diru laguntzarik (Eusko Jaurlaritzan badago gai honekiko kezka).
- Euskara planak hedatzea ez da diruz laguntzen.
- Dirulaguntza deialdiak lan handia eskatzen du eta gero ordainez diru gutxi jasotzen da.
- Eskaera sozialaren falta eta barneko eragileen inplikazio falta.
- Planen arteko uztardura eza.
- ADEGIk eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ez dute dirurik jartzen Euskara Planak finantzatzeko.
- Eragile anitzen arteko koordinazioa egoki bideratu gabe dago.

### **3.- Zertan eragin beharko genuke berariaz?**

- Elkarlanean aritzeko guneak sortzen.
- Fondo bateratuak sortzen, fundazio kontzeptua lantzen hasiz.
  - Enpresek ez dute normalean dirurik jarri nahi.
  - Aholkulariak orain dela oso gutxi hasi dira batzen.
  - Euskara erakundeak inplikatzeko beharra.
- Zerga onurak lortzeko bideak elkarlanean lantzen.
- Sentsibilizazioa handitzen eta sustapen lana burutzen: Industria Saila, ADEGI-CONFEBASK, Sindikatuak (negoziazio kolektiboen bitartez).
- Interbentzio eredu estandarizatuak bultzatzen.
- Agenteen arteko funtzioen banaketa eginez.
- Eragileen arteko koordinazioa sustatzen.

### **4.- Zein nolako prozedurak erabili ahal ditugu hobetu beharreko horiei ekiteko?**

#### **Funtzioak – Baliabideak - Pertsonala**

- Administrazioetik gaia industria sailean lantzen hasi behar da.
- Enpresa txikietan ere bermatu behar da dirulaguntza apurra.
- Eragileen arteko koordinaziorako diru baliabideak finkatu behar dira.
- Bilgunea-fundazioa sortu beharra dago:
  - Sindikatuak
  - Jaurlaritza/Foru Aldundiak
  - Enpresariak
  - Zerbitzu enpresak
  - Euskalgintza

## 4.2. MOTIBAZIOA

### 1.- Planak bideratzen hasi zirenetik izaniko hobekuntzak.

- Orain arte norbere borondateaz joan dira euskararen kontuan. Orain euskara plana dutenetik, jendearen jarreraren hobekuntzak nabaritu dira.
- Planak hasierako fasean dauden enpresatan planarekiko beldurrak kentzea izan da helburua eta hau oso inportantea da. Baita ere enpresak planarekiko jarrera aldekoa izatea.

### 2.- Gaur egun zertan sumatzen ditugu ahuleziak?

- Hasieran beti borondate eta motibazio handia ikusten da. Orain ahulezia dator, jendea erlaxatu egiten da eta hasierako dinamika puskatu egin da.
- Batzuen ustez euskara klaseetan motibazio falta izaten da. Enpresaren lehentasuna produkzioa da.
- Adineko askoren ideia da beraiek ez dutela alfabetatzeko beharrik, gazteek aldatuko dutela, berez, egoera.
- Jarrerak eta portaerak ez datoz bat gehienetan. Inguru euskalduna izanik ere askotan euskara ez da izaten lanerako tresna. Gehiengoa euskalduna izatea ez da baldintza nahikoa askotan euskaraz lan harremanak sortzeko.
- Bederatzi urte enpresa batean daraman pertsonaren iritzia: ezagutza eta erabileran eragin da, baina motibazioa alde batera utzi da eta gaur egun mahai gainean dugun arazoa da.
- Teknikari asko polizia sentitzen dira. Beraien aurrean euskaraz egiten dute eta bestela auskalo!
- Askotan intuizioz egiten dira ekintza motibatzaileak.
- Administrazioaren jarrera desmotibatzailea: oztopoak, burokrazia. Paradoxikoa da. Askotan nahiago da dirua ez eskatu, traba guztiei aurre ez egiteagatik.
- Enpresaren eguneroko dinamikan euskara bigarren mailako osagai izatea. Enpresaren ohiturak oztopo izan daitezke askotan. Adib: kontratazio irizpideak aipatu dira.

### 3.- Zertan eragin beharko genuke berariaz?

- Motibazioa eta partehartzea sustatu eta bizirik mantentzen.
- Barne komunikazioan: barne komunikazioa oso garrantzitsua da jarrera aldaketa eta motibazioan, besteak beste, diskurtsoak aldatu eta eragiteko.
- Teknikariak enpresan txertatua egon beharko luke. Kalitate eta beste hainbat gauzatarako teknikariak dauden moduan, euskara teknikariak ere enpresan bertan. Beste batzuen ustez, ordea, horrek esan nahiko luke helburu jakinik ez dagoela eta inoiz ez dela euskalduntzea lortuko.
- Euskara klaseak ez dira “saldu” behar, langileek jakin egin behar dute horrek eskatuko dien esfortzua.
- Aurre diagnostikoan: oraindik planetan sartu ez diren enpresa askok kezka handia dute langileen motibazioa ezagutzeko, aurre-diagnostiko hori eskatzen dute.
- Euskaraz ez dakitenengan indarrak jarri: motibazioaz ari garenean gehienetan euskaldun zaharren motibazioaz ari gara eta zer gertatzen da euskara ez dakitenekin?
- Hizkuntza ohiturak aldatzen: Hizkuntza-hautuen eta harremanen arteko autokontzientziaren garrantzia azpimarratzen da.

- Aldizkari etab..beste euskarriak lantzerakoan: Aldizkariak, festak...zenbateraino erabili dira motibazio pizgarri gisa? Zer aukera eman dezakete? Ateratzen zaie etekinik motibazio ikuspegitik?

#### **4.- Zein nolako prozedurak erabili ahal ditugu hobetu beharreko horiei ekiteko?**

##### **Funtzioak - Baliabideak - Pertsonala**

- Motibazioa eta partehartzea bultzatzeko komunikazio planean kanalak bideratu behar dira honetarako.
- Planifikazioaren beharra. Helburuak markatzea eta jarraipen bat egitea ezinbestekoa da motibazioa sustatze aldera. Hasierako ilusioa mantentzeko ezinbesteko arma da komunikazioa: jendeak helburuen betetze maila ezagutzea, informazioa eskura izatea...
- Haserako berotasun hori mantendu behar da. Motibazioa zerbait intangiblea da: nola programatu denboran? Zelan ebaluatu? Hasierako inpultsoa epe luzera mantenduko duten baliabideak behar dira.
- Elkarren berri izateko komunikazioa. “Honetan gu bakarrik gabiltzala ematen du”. Bestelako esperientzietatik ikas daiteke, norberaren zailtasunak gainditzeko pistak aurki daitezke.
- Lehenagoko erabilera taldeek ez dute horrenbeste garrantzi, talde naturalagoak sortu dira? Teknikari-pertsona harremana sendotu da/behar da.
- Aldizkariak etab lantzerakoan arreta jarri motibazioaren ikuspegiari.
- Aurre diagnostikoan, euskaraz ez dakitenengan eragiteko eta hizkuntza ohiturak aldatzen hasteko baliabideak aurreikusi behar dira.

## 4.3. ITZULPENGINTZA eta TERMINOLOGIA

1.- Planak bideratzen hasi zirenetik izaniko hobekuntzak.

2.- Gaur egun zertan sumatzen ditugu ahuleziak?

### TERMINOLOGIA

Adostasun eza. Bakoitzak bere aldetik hiztegiak egiten dihardu.

3.- Zertan eragin beharko genuke berariaz?

### ITZULPENGINTZA

- Teknologia ezarri. Alor honetako teknologia ezartzen bada euskararentzat, hizkuntzen teknologia ezartzen dugu, ez bakarrik euskararena.
- Aldi bereko itzulpenak.
- Lan antolaketa.

### TERMINOLOGIA

- Partehartzea/Elkarlana. Talde bat elkartu eta ahalik eta jende gehienak parte hartzea.
- Gaiaren lehentasunaz. Lan munduko enpresen agendan lehentasunezko gaiekin batera, gaiari heldzea beharrezkoa da, elkarlanean, beharrezko irizpide eta erabilerak bateratzeko.

4.- Zein nolako prozedurak erabili ahal ditugu hobetu beharreko horiei ekiteko?

**Funtzioak – Baliabideak - Pertsonala**

### ITZULPENGINTZA

- Itzulpengintzaren teknologiaren hedapena egiten bada enpresetan, “itzulpen memoriaren” aukera zabaltzen da.
- Aldibereko itzulpenetan MCC zerbitzu zentraletatik kostuak murriztu litezke. Teknologia horri etekina atera dakioke beste hizkuntzetan.
- Ahozko aldibereko itzulpenetan itzulpen profesional-espezialistatik xuxurlatzen aritzearen tarteko mailak landu behar dira.
- Taldekako banaketak egitean (kontseilutxoak) hizkuntzen araberako taldetan egitea praktikoa da.
- Bikoizketaren bidea murrizta da. Euskarazko dokumentuetara jo beharko litzateke askotan, mailakatuta.

### TERMINOLOGIA

- Enpresa gehienek erabiltzen dituzten terminoak onartu egin behar dira.
- Dirua eta egitura administrazioak jarri beharko lituzke. Quebec-eko adibidea eredu.
- Euskaltzaindiaz gain, terminologiako beste erakunde bat sortu beharko litzateke, atzeratutakoari eta sortu daitezkeen termino berriei erantzuteko.

## **4.4. EUSKARA PLANEN EBOLUZIOA**

### **1.- Planak bideratzen hasi zirenetik izaniko hobekuntzak.**

#### **DISEINUA**

##### **Lehen**

- Asko hobetu dira azken 4-6 urtetan. Haserako helburuak ez ziren neurgarriak. Teknikariek jendearentzat planteatzen zituzten baina langileek ez zuten parte hartzen.
- Bide paraleloak zeuden enpresa eta zuzendaritzaren artean eta ez zuten bat egiten. Utopikoak ziren.

##### **Orain**

- Orain neurgarriak dira eta partehartzaileak izaten saiatzen dira. Helburu lorgarri eta errealagoak jartzen dira.
- Erabileran hobekuntza eta betetze mailan ere bai.
- Garrantzi handia dauka enpresa ezagutzeak eta bere barruko harremanak, gero inplementatzeko orduan inplikazio handiagoa lortzeko.

#### **EGITURA**

##### **Lehen**

- Plana periferikoa zen, enpresan egiten zen baina ez enpresarako.

##### **Orain**

- Enpresaren beraren egiturak aprobetxatuaz bertan txertatu behar dira. Dauden egitura horietaz gain sortu beharko da batzorde berezi bat iraupen mugatua eta kopuru mugatua izango duena.
- Gaur egun planak ofizialtasun handiagoa dauka. Sinesgarritasuna handitu da eta '3-4 lagunen' eta 'moda kontua' dela uste izate hori gainditu da.
- Kooperatiben egiturak eta euskararekiko identifikazioak erraztu egiten du euskara planak garatzea.

#### **KOMUNIKAZIO-PLANA**

##### **Lehen**

Komunikazio plana ez zen lantzen; ez zen hartzen benetako baliabide gisa.

##### **Orain**

Orain batzuek bakarrik kanpo harremanetarako irudi moduan erabiltzen dute. Enpresa bakoitzak arrazoi eta helburu desberdinak dauzka bere komunikazio plana diseinatzeke orduan. Batzuek, kanpo irudia lantzen dute bakarrik barne komunikazioa bigarren mailan utzita.

#### **TEKNOLOGIA**

Lagunak dira lana sinplifikatzeko.

### **2.- Gaur egun zertan sumatzen ditugu ahuleziak?**

## **DISEINUA**

- Diru laguntzen eskabideekin topo egiten dugu. Dirulaguntzak badaude, baina HPS diru laguntza sistemak kudeatzera mugatzen da.
- Langileak, guztiak, planean identifikatzeko bide informalean hutsunea dago.
- Motibazio, inplikazio falta.

## **EGITURA**

- Egiturretan sartzeko zailtasunak daude diru laguntzengatik.

## **KOMUNIKAZIO-PLANA**

- Produktibitate ekonomikorik ez duen gai batean inbertitzea dirua botatzea da zenbaiten ustez. Ideia horren antidotoa landu behar da eta arrazoiz bete.

## **TEKNOLOGIA**

- Enpresaren izaeraren eta tamainaren arabera leku askotan mugak daude langile guztiengana iristeko horien bidez.
- Interneten erabilera mugatzen ari dira leku askotan eta horrek euskara planarentzako muga bat suposa dezake.

### **3.- Zertan eragin beharko genuke berariaz? Zein nolako prozedurak erabili ahal ditugu hobetu beharreko horiei ekiteko?**

#### **Funtzioak. Baliabideak - Pertsonala**

## **DISEINUA**

- Erakargarriago bihurtzea eta borondatezkotasuna igotzea. Horrela betetze maila altuagoa lortuko genuke. Horretarako argumentazioa landu behar da eta beste bide batzuk landu behar dira motibazioaz gain. Adibidez:

Enpresaren ikuspuntutik landu behar da gaia ez euskara ikuspuntutik bakarrik (euskararekiko dugun sentimendu afektibo horretatik bakarrik). Hau da, enpresa ikuspuntutik diogunean, enpresak gizartearekiko duen erantzukizunaren barnean kokatu behar dugu gai hau. Gizarte asebetetzea da lortu nahi dena eta enpresak sistemak, adierazleak, metodologiak...ezartzen dituela horretarako. Adib: Aslek-eta urrezko Qa dute eta jasotzen dituzte euskararen inguruko aipamenak.

- Diseinua egiterakoan, garrantzitsua da langileen inplikazioa ez ezik, zuzendaritzakoena ere lortzea; izan ere, erabakitzeko ahalmena zuzendaritzan dagoelako. Proposamena da, beraz, lan talde txikietan aritzea diseinua egiteko garaian. Langileak eta zuzendariak bertan nahastuak egon behar dute inplikazio handiagoa lortzeko. Lan talde horiek sortu ahal dira dauden beharren arabera.

## **EGITURA**

- HPSa diru laguntzen gestioetara mugatu beharrean, kabinete edo batzorde tekniko indartsu bat sortu beharko luke metodologia, tresnak estandarizatzeke.

- Beharren arabera, talde txikiak sortu beharko lirateke enpresaren egituraren txertatzeko modukoak. Adib: ahozkoa lantzeko taldea.
- Industria Sailak hartu behar du bere gain euskara biziberritzearen gaia, eta ez HPSk bakarrik; izan ere, enpresarentzat benetan gai garrantzitsua baita. Adib: subentzioen kasuan.

#### **4.- Proposamen eta iritzi orokorrak:**

1.- Bakoitza ahal duen bezala ari da lanean, bere aldetik, ahal duen papera betetzen eta ahal duen neurrian. Masa kritikoa badago baina gauzak martxan jartzea falta da. Teknikariak gehiago elkartu beharko lirateke, mintegiak egin; baita patronala eta zuzendaritza ere. Euskara-planen zergatiaz eta zertarakoez gogoeta egiteko.

Egitura baten beharra dago, elkartzeko egitura batena. Federazioa edo zerbait egin beharra dago. Bestela bi urte barru beste jardunaldi batzuetan elkartuko gara eta 'gaudenetan' izango gara.

2- Euskara planetan sartzen ziren enpresen kopurua biderkatzen joatearena ez da gertatu. Enpresa da gizarteko motorra, baina euskararen kasuan ez da motor gertatzen ari. Eskara sozialik ez dago. Erdarazko produktuak erosten ditugu, erdaraz zerbitzatuak gara... Hor barne bezeroek badaukate esatekorik, langileek ez baitute eskatzen euskara plana abian jartzerik. Sindikatuek ez dute eskaerarik egiten. Hornitzaileekiko harremanean ere euskara tresna garrantzitsua denez, baldintza moduan euskara eskatu beharko genuke, efektu biderkatzailea egon dadin. Izan ere, estimulurik ezean, prozesua ez baita martxan jartzen.

3.- Kontsumitzaileen lege berria. Kontsumitzailea subjektu biderkatzailea da. Merkatu sisteman bizi garenez, hortik etorri daiteke efektu biderkatzailea eta eskaera sozialaren aktibazioa. Kontsumitzailea edozein arlotan eragiteko subjektua da. Lege berri hau, ordea, nahiko lege epela da nahiz eta intentzioa ona izan.

4.- Marketing kanpaina iraunkorra egin beharko litzateke jendea motibatuzeko eta euskara erakargarri bilakatzeko. Kalitate kanpaina egiten denean guztiak jartzen dira horren atzetik; euskararekin, beraz, antzera egin beharko litzateke.

5- Eskara sozialik ez dagoela? Nik ez dut uste hala denik. Ez gaitezen hasi geure buruari harriak botatzen. Kontua da hori artikulatu egin behar dela. Ez da soilik euskara erakargarri eta lagungarri egiten saiatu behar. Gizartearekiko erantzukizunaren ildotik lortu behar da enpresa inplikatzeko.

## 5.- JARDUNALDIEN AMAIERA

Jardunaldiei amaiera emateko, aukera eman zitzaien parte hartzaileei hitza hartzeko.

Izaniko interbentzioetan errepikatu zen ideia bat izan zen ea HUHEZIK antolatutako jardunaldi honek jarraipenik izan behar al duen datozen urteotan. Iritzi emaileen ustetan, benetan garrantzitsua da era honetako ekimenei jarraibidea ematea. Izan ere, ponentzietan eta lan-taldeetan esandakoak aintzat hartuko badira, ezinbestekoa baita zuzenean ari garen eragileen arteko hartu-emanetan sakontzea.

Jarraipena desiratzeaz gain, proposamen zehatzak ere egin ziren, beti ere jardunaldien etorkizuna hobeto bideratze aldera. Proposamen horien artean, honako bi hauek nabarmenduko ditugu:

1.- ELAk eta LABek elkarlanean eginiko ponentzian lan munduan euskararen normalizazioaz aritzeko entitate instituzional espezifiko baten premia aipatu dute. Horretarako, ezinbestean elkarlana bultzatu beharra dago. Beste eragile batzuetatik jaso da fundazio bat sortzearen premia hori. Horregatik, honen alde biltze ahalegina egin behar dela adierazi dute.

2.- Aurrerapauso handia da horrenbeste eragile bertaratzea jardunaldiotara. Hala ere, faltan sumatu da enpresetako zuzendarien eta patronaleko ordezkarien parte hartzea. Horiek ere eragile garrantzitsuak direnez, komeniko litzateke ahalegintzea hurrengo jardunaldietara etor daitezen.

Eta interbentzioen ondoren, egun osoko saio beteari amaiera emateko, Bitoriano Gandiagaren poema hau irakurri zen, ozen:

### EUPADAK

#### I

ORAIN hau, orain bestea.  
Euskara, gero;  
azken, postrea.

Baina euskara  
gero ere ezingo da  
orain ezin bada.

-Orduan?  
-Hara:  
Euskara gerorako  
uzterik ez dago  
badaezpada.

#### II

“Jende profesional  
ona lehenengo”,

euskara gero.

Baina ta bitartean  
euskara galtzen bada,  
ordu txarrean frogatuko da  
profesional beharrik  
ez zegoela.

(kaltetan zela  
*no sé euskara-*  
profesional onen  
gaurko bolada).

### III

Eupada bat eta eupada bi:  
berbetan euskara erabili

Orain hau, euskara;  
gero bestea:  
profesionalen talde trebea  
euskaraz, noski.

Oi, ene andre  
edo jaun maite ahal duzun hori:  
Errazkeriaz eta lotsarik gabe  
inperioko hizkuntzan *dale*  
ari zaizkigun mintzalariez  
aspertu gara;  
erdara badakigu,  
ea euskara.

### IV

Erabiltzen ez bada  
hil egiten da euskara.  
Ez da ezergatik, baina  
aipatu egiten dizut,  
badaezpada.

Erabiltzen ez den Euskara  
hil egiten da  
mugitzen ez den bihotza  
hil egiten den bezala.

Euskara ez da  
asko ta asko galdu  
asko eta asko erabili delako.  
Askotan eta asko  
erabili ez delako  
galdu da euskara

askoan asko.

Ez da ezergatik, baina  
galdu den euskara,  
pitiñ bat bada ere,  
eskuratuko bada  
askotarako eta beharrez askoka  
erabili beharko da.

Ez da ezergatik, baina  
euskara hil egiten da  
berriketetan euskaraz  
hitz egiten ez bada.

Ez da ezergatik, baina  
isiltzen duzun euskara  
hiltzen duzun euskara da.

Telebistako jendea dut gogoan eta prentsakoa eta osasun zentroetakoa eta abokatutzakoa, besteak beste. Orain hamar urte baino gehiago dela bota nituen eupadok, baina gaur bertan ere bota ditzaket eta egungo errealitateari irain handirik egin gabe bota ere.